

Astroen izenak

Munduko leku-izen nagusiak arautu ondoren, Euskal Herriaz haraindiko toponimia nagusia amaitzeko, gure planetaz kanpoko lekuen izenei ere, astroen izenei, erreparatu die Euskaltzaindiak. Astronimia toponimiaren atalik ezezagunetakoa da, hain zuzen ere, guregandik urrutien dauden izenez arduratzen baita.

Ezagutzen diren astroen kopurua etengabe handituz doa, eta, astro berriak izendatzeko, kodeak erabiltzen dira nagusiki. Nazioarteko izendapenak dira, eta ez dira, beraz, euskaraz berariaz aztertu behar. Badira, dena den, zenbait astro-izen —astrorik ezagunenei dagozkienak eta maizen erabiltzen direnak—, hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen direnak. Haiexek dira arau honen langaia.

Honela antolatuta aztertu dira hemen agertzen diren astro-izenak:

- 1- Planetak eta planeta nanoak
 - 1.1- Planetak
 - 1.2- Planeta nanoak
- 2- Sateliteak
 - 2.1- Lurraren satelitea
 - 2.2- Marteren sateliteak
 - 2.3- Jupiterren sateliteak
 - 2.4- Saturnoren sateliteak
 - 2.5- Uranoren sateliteak
 - 2.6- Neptunoren sateliteak
 - 2.7- Plutonen sateliteak
- 3- Izarrak eta konstelazioak
 - 3.1- Izarren izendapena. Irizpidea
 - 3.2- Eranskina: alfabeto grekoaren letren izenak
 - 3.3- Izarrak distiratsuenetariko batzuk
 - 3.4- Konstelazioak eta asterismoak
 - 3.5- Zodiakoko konstelazioak eta astrologiako zeinuak
 - 3.6- Konstelazioen izenak euskaraz adierazteko irizpidea
 - 3.7- Konstelazioak (88 konstelazio ofizialak)
 - 3.8- Asterismoak
- 4- Nebulosak eta galaxiak
 - 4.1- Nebulosak
 - 4.2- Nebulosa eta galaxietan izen berezia eta izen generikoa lotzeko moduari buruzko irizpidea
 - 4.3- Izen berezia duten nebulosa nagusietako batzuk
 - 4.4.- Galaxiak
 - 4.5- Izen berezia duten galaxia nagusietako batzuk
- 5- Asteroideak, kometak, izar iheskorak eta beste
 - 5.1- Asteroideak
 - 5.2- Irizpidea
 - 5.3- Asteroide nagusiak (225 kilometrotik gorako diametrokoak)
 - 5.4- Kometak
 - 5.5- Izendatzeko irizpidea
 - 5.6- Kometa ezagun batzuk
 - 5.7- Izar iheskorak (meteorozaparradak)
 - 5.8- Izar iheskorak izendatzeko irizpidea

5.9- Izar iheskor ezagunenetariko batzuk

5.10- Eguzki-sistemako beste objektu-multzo batzuk

Arlo horietako bakoitzean, izendegiaz gainera (astro-izenen zerrenda eleaniztunak; guztira 355 astro-izen), izen horien atzean dauden irizpideak ere zehaztu dira, zerrendetan ageri ez diren bestelako astro-izenekin nola joka litekeen erakustearren.

Astro-izenez gainera, bi eranskin osagarri ere ematen dira: planetetako jatorri-adjektiboen zerrenda —planeta-izenekin batera ematen dira— eta alfabeto grekoaren letren izenak, izarrak izendatzeko erabiltzen direnez erabilgarriak gerta baitaitezke.

Astroen izendapena

Nazioarteko Astronomia Batasuna (IAU, International Astronomical Union / UAI, Union astronomique internationale) da nazioarteko erakunde bakarra ortziko argizagiei (izarrak, planetak, asteroideak...) eta haien gainazaleko edozein erliebe-unitateri izena esleitzeko onartuta dagoena. Adostasunez hartzen ditu objektu astronomikoen izendapenari buruzko erabakiak, eta, lege-indarrak ez badu ere, haren erabakiak (hitzarmenak) nazioarteko estandar bihurtzen dira. IAU 1919an sortu zen; gaur egun, 73 estatu kide ditu, eta 10.000 banako bazkidetik gora.

Ortzian objektu berrien bat aurkitzen denean, behin-behineko izendapen sistematiko bat esleitzen zaio, letraz eta zenbakiz osatua; gero, denbora igarotakoan (urteak izan ohi dira, eta, batzuetan, urte asko) behin betiko izena ematen zaio.

IAU sortu baino lehen aurkitutako astro-izenak salbuespen dira. Kometei aurkitzailearen izena ematen zitzaien (*Halley kometak*, adibidez, Edmond Halleyk aurkitua). Asteroideak, berriz, aurkitzailearen gustuaren edo asmamenaren arabera izendatzen ziren. Sateliteak, gehienetan, planetarekin zerikusia duen zerbaiten arabera: Saturnoren sateliteak, adibidez, greziar mitologiako erraldoien eta titanen izenekin; Uranorenak, William Shakespeareren obretako pertsonaien izenekin, Urano ingeles batek aurkitu zuelako.

IAUk irizpide orokorrak landu ditu astroei izenak esleitzeko, eta haien arabera adosten dira, gaur egun, izendapenak.

1- Planetak eta planeta nanoak

1.1- Planetak

Mitologia greko-erromatarretik hartu dira izenak (gure planetaren izena izan ezik). Beraz, izen mitologikoak eta planeten izenak berdin idazten dira. Euskaraz, bada planeta-izen tradizioidun bat: *Artizarra*. Gainerakoak, berriz, mailegatu egiten dira, eta, mitologia-izenetan baitute oinarria, mitonimoa (izen mitologikoa) eta astronimoa (astro-izena) berdin idazten dira.

Irizpide hori ez dagokio noski euskarari bakarrik; alegia, irizpide hori bera erabiltzen da, adibidez, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Konparazio batera, erromatar mitologian, *Mercurius* merkataritzaren jainkoa zen. Frantsesez *Mercur*e idazten da jainko-izen hori, gaztelaniaz *Mercurio*, ingelesez *Mercury*. Eta euskaraz *Merkurio* idazten da, Euskaltzaindiak hala erabakia 1998an, 82. arauan. Jainkoaren izenetik eratorri da planetaren izena, eta jainkoa idazten den bezala idazten da planeta ere frantsesez (*Mercur*e), gaztelaniaz (*Mercurio*) eta ingelesez (*Mercury*). Euskaraz ere, planetaren izena eta jainkoaren izena berdin idaztekoak dira.

| euskara | jatorri-adjektiboa | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|-------------------------------|--------------------|---|---|--|
| Artizarra ¹ | artizartar | Venus / (herri-izendapena: <i>Lucero del alba</i>) | Vénus / (herri-izendapena: <i>étoile du matin</i>) | Venus / (herri-izendapena: <i>Morning star</i>) |
| Merkurio | merkuriar | Mercurio | Mercur | Mercury |
| Lurra ² | lurtar | Tierra, la | Terre, la | Earth, the |
| Marte | martetar | Marte | Mars | Mars |
| Jupiter | jupitertar | Júpiter | Jupiter | Jupiter |
| Saturno | saturnoar | Saturno | Saturne | Saturn |
| Urano | uranoar | Urano | Uranus | Uranus |
| Neptuno | neptunoar | Neptuno | Neptune | Neptune |

1.2- Planeta nanoak (Nazioarteko Astronomia Batasunak 2006an sortutako kategoria)

Planetak bezala, izen mitologikoetatik eratorri dira planeta nanoen izenak ere. Hau da planeta nanoak euskaraz izendatzeko irizpidea: izenaren jatorria mitologia greko-erromatarrean dagoenean, mitonimoaren grafiarako irizpideak (76. araua) erabili dira. Jatorria bestelako mitologian dagoenean, ez da grafia-aldaketarik egin. Irizpide bikoitz hori bera erabiltzen da gaztelaniaz eta frantsesez ere.

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|------------------------------|--------------|-----------|----------|
| Eris | Eris / Éride | Éris | Eris |
| Haumea ³ | Haumea | Haumea | Haumea |
| Makemake ⁴ | Makemake | Makemake | Makemake |
| Pluton ⁵ | Plutón | Pluton | Pluto |

¹ *izar* hitza bezala deklinatzen da: *Artizarra, Artizarreko, Artizarrera, Artizarrean, Artizarraren...* **Venus** izena ere kultismo moduan erabil daiteke (eta **venustar** jatorri-adjektiboa ere bai).

² *lur* hitza bezala deklinatzen da: *Lurra, Lurreko, Lurrera, Lurrean, Lurraren...*

³ Izena Hawaii uharteko *Haumea* jainkosaren izenetik eratorri da.

⁴ Izena Pazko uharteko *Make-Make* jainkoaren izenetik eratorri da.

| | | | |
|-------|-------|-------|-------|
| Zeres | Ceres | Cérès | Ceres |
|-------|-------|-------|-------|

Badira ortzian objektu gehiago planeta nanoaren kategoria izateko hautagai direnak, eta litekeena da IAUK kategoria hori ematea luze baino lehen. Hauek dira planeta nano kategorian sartzeko hautagai izendun nagusiak⁶:

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|-------------------|------------|---------------|----------|
| Higiea | Higía | Hygie / Hygée | Hygiea |
| Huya | Huya | Huya | Huya |
| Ixion | Ixión | Ixion | Ixion |
| Orko ⁷ | Orcus | Orcus | Orcus |
| Palas | Palas | Pallas | Pallas |
| Quaoar | Quaoar | Quaoar | Quaoar |
| Sedna | Sedna | Sedna | Sedna |
| Varuna | Varuna | Varuna | Varuna |
| Vesta | Vesta | Vesta | Vesta |

2- Sateliteak

Sateliteen izenak, gehienetan, mitologia greko-erromatarrean dute oinarria. Halakoetan, grafia bera izan ohi dute izen mitologikoak eta astro-izenak. Mitonimo greko-erromatarrik idazteko irizpideak zehatz-mehatz azaltzen dira 76. arauan, eta aplikatuta agertzen dira 82. arauan, besteak beste (76. araua: *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*; 82. araua: *Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak*).

Oro har, grafia egokitzeko orduan, mitonimoa eta astronimoa berdin idazteko irizpide horri jarraitzen diote inguruko hizkuntzek ere, koherentzia betetik ez badago ere. Hauek dira, planetaka antolatuta, sateliteen izenak:

2.1- Lurraren satelitea

⁵ Jatorri-adjektiboa **plutondar** da.

⁶ Badira objektu gehiago planeta nano izateko hautagai direnak, baina zenbaki- eta letra-kode bidez izendatzen dira behin-behinean, hau da, izendapen sistematikoa dute, eta ez benetako izenik. Adibidez: **(225088) 2007 OR₁₀** delakoa 2007an aurkitu zen, eta eguzki-sisteman izenik ez duen astrorik handiena da.

⁷ Berrria eta aski ezezaguna denez, **Orcus** izen kultua (erromatar mitologian du jatorria) erabiltzea ere ez da gaitzestekoa.

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|-------------------------------|------------|-----------|----------|
| Ilargia ^{8,9} | Luna | Lune | Moon |

2.2- Marteren sateliteak

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|---------------|------------|-----------|----------|
| Deimos | Deimos | Déimos | Deimos |
| Fobos | Fobos | Phobos | Phobos |

2.3- Jupiterren sateliteak¹⁰

Jupiterri aurkitutako lehenengo lau sateliteak —satelite galileotarrak— 1614an bataiatu zituen Simom Marius astronomoak (*Io, Europa, Ganimedes, Kalisto*), izen mitologiko grekoak erabiliz. Bosgarren satelitea 1892an aurkitu zen. *Amaltea* izena eman zion Camille Flammarion astronomo frantsesak, eta hala zabaldu zen. XX. mendearen lehen erdian aurkitutako beste sateliteentzat ez zen, hasieran, izen formalik erabili. Proposamen batzuk egin ziren, baina ez ziren zabaldu. 1975ean, IAUko Nomenklatura Batzordeak Jupiter VI-XII sateliteentzako izenak eman zituen Zeus jainko grekoaren maitaleen izenak baliaturik. IAUren 2004ko Batzar Nagusiak erabaki zuen, Jupiterren sateliteak bataiatzeko, Zeusen ondorengoen izenak ere erabiltzea, maitaleen izenez gainera. Eta Jupiter XXXIV sateliteaz geroztik (*Euporia*), Jupiterren satelite guztiek Zeusen alaben izenak erabiliz bataiatu dira.

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|-----------------|------------------|-----------------------|----------|
| Adrastea | Adrastea | Adrastée | Adrastea |
| Aitne | Aitné | Aitné / Aïtné / Aetna | Aitne |
| Amaltea | Amaltea | Amalthée | Amalthea |
| Ananke | Ananké / Ananqué | Ananké | Ananke |
| Aoede | Aeaea | Aoédé | Aoede |
| Arke | Arché / Arce | Arché | Arche |
| Autonoe | Autónoe | Autonoé | Autonoe |
| Elara | Elara | Élara | Elara |
| Erinome | Erínome | Érinomé | Erinome |
| Esponde | Espondé / Spondé | Spondé | Sponde |

⁸ Honela deklinatzen da: *Ilargia, Ilargiko, Ilargira, Ilargian, Ilargiaren...*

⁹ Jatorri-adjektiboa **ilargitar** da. Onargarria da **selenita** kultismoa ere.

¹⁰ Jupiterrek 66 satelite ezagun ditu. Haietariko 50 oso txikiak dira, 10 kilometro baino gutxiagoko diametrokoak, eta 1975az geroztik aurkitu dira. Orain arte, 50 sateliteri eman zaie izen formalak; eta 16 satelite daude oraindik izen sistematikoa besterik ez dutenak (adibidez, S/2010 J 1, S/2010 J 2, S/2003 J 3...).

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|------------------|---------------------|-------------------------|------------|
| Euante | Euante | Euanthé | Euanthe |
| Euporia | Euporia | Euporie | Euporie |
| Euridome | Eurídome | Eurydomé | Eurydome |
| Europa | Europa | Europe | Europa |
| Euzelade | Eucelade / Eukélade | Eukéladé | Eukelade |
| Ganimedes | Ganímedes | Ganymède | Ganymede |
| Harpalize | Harpálice | Harpalycé | Harpalyke |
| Hegemone | Hegémone | Hégémone | Hegemone |
| Helize | Hélice / Heliké | Hélicé | Helike |
| Hermipe | Hermipé | Hermippé | Hermippe |
| Hertse | Herse | Hersé | Herse |
| Himalia | Himalia | Himalia | Himalia |
| Io | Ío | Io | Io |
| Isonoe | Isonoé | Isonoé | Isonoe |
| Jokasta | Yocasta | Jocaste | Iocaste |
| Kaldene | Caldona | Chaldéné | Chaldene |
| Kale | Calé | Calé | Kale |
| Kalikore | Kallichore | Callichore / Kallikhoré | Kallichore |
| Kalirroe | Calírroe | Callirrhoé / Callirhoé | Callirrhoe |
| Kalisto | Calisto | Callisto | Callisto |
| Kalize | Cálice | Calicé / Calycé | Kalyke |
| Karme | Carmé | Carmé | Carme |
| Karpo | Carpo | Carpo | Carpo |
| Kore | Kore / Core | Coré | Kore |
| Leda | Leda | Léda | Leda |
| Lisitea | Lisitea | Lysithée | Lysithea |
| Megaklite | Megaclite | Mégaclité | Megaclite |
| Metis | Metis | Métis | Metis |
| Mneme | Mnemea | Mnémé | Mneme |
| Ortosia | Ortosia | Orthosie | Orthosie |
| Pasifae | Pasífae | Pasiphaé | Pasiphae |
| Pasitea | Pasítea | Pasithée | Pasithee |

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|------------------|------------|-----------------------|-----------|
| Praxidize | Praxídice | Praxidiké / Praxidicé | Praxidike |
| Sinope | Sinope | Sinopé | Sinope |
| Taigete | Táigete | Taygète / Taygèté | Taygete |
| Tebe | Tebe | Thébé | Thebe |
| Telxinoe | Telxínoe | Telxinoé | Thelxinoe |
| Temisto | Temisto | Thémisto | Themisto |
| Tione | Tione | Thyoné | Thyone |
| Zilene | Cilene | Cyllène / Cylléné | Cyllene |

2.4- Saturnoren sateliteak¹¹

Saturnoren sateliteen izen modernoak John Herschelek iradoki zituen 1847an. Saturno izen mitologikoarekin erlazioa zuten beste izen mitologikoak erabiltzea proposatu zuen. Garai hartan ezagutzen ziren zazpi sateliteak titanen izenak erabiliz bataiatu ziren, Saturnoren anai-arrebak baitziren. 1848an, Lasellek proposatu zuen 8. sateliteari *Hiperion* izena —beste titan baten izena— ematea. XX. mendean titanen izenak agortu zirenean, mitologia greko-erromatarraren beste izenak edo beste mitologia batzuetako erraldioen izenak erabili ziren sateliteak bataiatzeko. Satelite irregularrak —*Febe* izan ezik— izendatzeko, inuiten eta zelten mitologiako izenak eta Eskandinaviako izotzetako erraldioen izenak erabili dira¹².

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|------------------|------------|-----------|-----------|
| Aegir | Ægir | Ægir | Aegir |
| Albiorix | Albiorix | Albiorix | Albiorix |
| Antea | Antea | Anthée | Anthe |
| Atlas | Atlas | Atlas | Atlas |
| Bebhionn | Bebhionn | Bebhionn | Bebhionn |
| Bergelmir | Bergelmir | Bergelmir | Bergelmir |
| Bestla | Bestla | Bestla | Bestla |
| Dafnis | Dafnis | Daphnis | Daphnis |
| Dione | Dione | Dioné | Dione |
| Egeon | Egeón | Égéon | Aegaeon |
| Entzelado | Encélado | Encelade | Enceladus |

¹¹ Saturnok 62 satelite ezagun ditu. Orain arte, haietarik 53ri eman zaie izen formalak.

¹² Asteroide batzuek Saturnoren sateliteen izen berak dituzte: *55 Pandora*, *106 Dione*, *577 Rea*, *1809 Prometeo*, *1810 Epimeteo* eta *4450 Pan*. Horrez gainera, beste bi asteroidek Saturnoren sateliteen izen berak dituzte, Nazioarteko Astronomia Batasunak grafia-aldaketak ofizialdu baditu ere ingeleserako (*Calypso* satelitea eta *53 Kalypso* asteroidea; *Helene* satelitea eta *101 Helena* asteroidea).

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|-------------------------------|------------|------------|-------------------|
| Epimeteo | Epimeteo | Épiméthée | Epimetheus |
| Erriapus ¹³ | Erriapo | Erriapus | Erriapus |
| Farbauti | Farbauti | Farbauti | Farbauti |
| Febe | Febe | Phœbé | Phoebe |
| Fenrir | Fenrir | Fenrir | Fenrir |
| Fornjot | Fornjot | Fornjot | Fornjot |
| Greip | Greip | Greip | Greip |
| Hati | Hati | Hati | Hati |
| Helena | Helena | Hélène | Helene |
| Hiperion | Hiperión | Hypérion | Hyperion |
| Hyrrokkin | Hyrrokkin | Hyrrokkin | Hyrrokkin |
| Ijiraq | Ijiraq | Ijiraq | Ijiraq |
| Jano | Jano | Janus | Janus |
| Japeto | Jápeto | Japet | Iapetus / Japetus |
| Jarnsaxa | Jarnsaxa | Jarnsaxa | Jarnsaxa |
| Kalipso | Calipso | Calypso | Calypso |
| Kari | Kari | Kari | Kari |
| Kiviuq | Kiviuq | Kiviuq | Kiviuq |
| Loge | Loge | Loge | Loge |
| Metone | Metone | Méthane | Methone |
| Mimas | Mimas | Mimas | Mimas |
| Mundilfari | Mundilfari | Mundilfari | Mundilfari |
| Narvi | Narvi | Narvi | Narvi |
| Paaliaq | Paaliaq | Paaliaq | Paaliaq |
| Palene | Palene | Pallène | Pallene |
| Pan | Pan | Pan | Pan |
| Pandora | Pandora | Pandore | Pandora |
| Polux | Pollux | Pollux | Polydeuces |
| Prometeo | Prometeo | Prométhée | Prometheus |
| Rea | Rea | Rhêa | Rhea |
| Siarnaq | Siarnaq | Siarnaq | Siarnaq |

¹³ Mitologia zeltako erraldoi baten izenetik eratorria.

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingelesa |
|-----------------|------------|-----------|----------|
| Skathi | Skadi | Skathi | Skathi |
| Skoll | Skoll | Skoll | Skoll |
| Surtur | Surtur | Surtur | Surtur |
| Suttungr | Suttungr | Suttungr | Suttungr |
| Tarqeq | Tarqeq | Tarqeq | Tarqeq |
| Tarvos | Tarvos | Tarvos | Tarvos |
| Telesto | Telesto | Télesto | Telesto |
| Tetis | Tetis | Téthys | Tethys |
| Titan | Titán | Titan | Titan |
| Ymir | Ymir | Ymir | Ymir |

2.5- Uranoren sateliteak

Uranok 27 satelite ezagun ditu, guztiak ere William Shakespeareren eta Alexander Poperen obretako pertsonaien izenez bataiatuak. Aurreko kasuetan ez bezala, hemen ez dago izen mitologikorik jatorrian. Horregatik, jatorrizko grafia atxikitzea da irizpide nagusia. Hala ere, zenbaitetan, pertsonaiak klasiko bihurtu dira, eta ikusten da hizkuntzatik hizkuntzara aldatu egiten dela grafia (adibidez: *Juliet*, *Ophelia*, *Cupid*). Halakoetan, grafia egokitzea hobetsi da (*Julieta*, *Ofelia*, *Kupido*).

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingelesa |
|------------------|------------|-----------------------|-----------|
| Ariel | Ariel | Ariel | Ariel |
| Belinda | Belinda | Belinda/ Bélinda | Belinda |
| Bianca | Bianca | Bianca | Bianca |
| Desdemona | Desdémona | Desdémone | Desdemona |
| Stefano | Stefano | Stephano | Stephano |
| Ferdinand | Ferdinando | Ferdinand | Ferdinand |
| Francisco | Francisco | Francisco | Francisco |
| Julieta | Julieta | Juliette | Juliet |
| Caliban | Calibán | Caliban | Caliban |
| Cordelia | Cordelia | Cordélia | Cordelia |
| Cressida | Crésida | Cressida | Cressida |
| Kupido | Cupido | Cupid | Cupid |
| Mab | Mab | Mab | Mab |
| Margarita | Margarita | Margaret / Marguerite | Margaret |

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|------------------|------------|-----------|----------|
| Miranda | Miranda | Miranda | Miranda |
| Oberon | Oberón | Obéron | Oberon |
| Ofelia | Ofelia | Ophélie | Ophelia |
| Perdita | Perdita | Perdita | Perdita |
| Portia | Porcia | Portia | Portia |
| Prospero | Próspero | Prospero | Prospero |
| Puck | Puck | Puck | Puck |
| Rosalinda | Rosalinda | Rosalinde | Rosalind |
| Setebos | Setebos | Setebos | Setebos |
| Sycorax | Sicorax | Sycorax | Sycorax |
| Titania | Titania | Titania | Titania |
| Trinculo | Trínculo | Trinculo | Trinculo |
| Umbriel | Umbriel | Umbriel | Umbriel |

2.6- Neptunoren sateliteak

Neptunok 14¹⁴ satelite ezagun ditu. Izenen jatorria izen mitologiko grekoak dira.

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|------------------|----------------|-----------|-----------|
| Despina | Despina | Despina | Despina |
| Galatea | Galatea | Galatée | Galatea |
| Halimede | Halimede | Halimède | Halimede |
| Laomedeia | Laomedeia | Laomédie | Laomedeia |
| Larisa | Larisa | Larissa | Larissa |
| Naiade | Naiad / Náyade | Naïade | Naiad |
| Nereida | Nereida | Néréide | Nereid |
| Neso | Neso | Néso | Neso |
| Proteo | Proteo | Protée | Proteus |
| Psamate | Psámate | Psamathée | Psamathe |
| Sao | Sao | Sao | Sao |
| Talasa | Talasa | Thalassa | Thalassa |
| Triton | Tritón | Triton | Triton |

¹⁴ Azkena 2013ko uztailean aurkitu da, eta ez du oraindik izen berezirik. Haren behin-behineko izendapena S/2004 N1 da.

2.7- Plutonon sateliteak

Plutonek bost satelite ezagun ditu. Haietariko hiru izen mitologiko grekoen izenak erabiliz izendatu dira; beste biek (2011n eta 2012an aurkituak), gaur egun, izendapen sistematikoa besterik ez dute: S/2011 P 1 eta S/2012 P 1.

| euskara | gaztelania | frantsesa | ingeleza |
|--------------|------------|---------------|----------|
| Hidra | Hidra | Hydra / Hydre | Hydra |
| Karon | Caronte | Charon | Charon |
| Nix | Nix | Nix | Nix |

3- Izarrak eta konstelazioak

3.1- Izarren izendapena. Irizpidea

Begi hutsez ikusteko bezain distiratsu diren izarrak milaka gutxi batzuk besterik ez dira. Horregatik, izar gehien-gehienek ez dute berezko izenik. Distira handiko izar batzuek baino ez dute izen historikoa, asko arabiar jatorrikoa, Erdi Aroan Europako astronomian arabiar kulturak izan zuen eraginaren isla. Izendunak, guztira, 300-350 inguru dira, eta, maiz, izar distiratsuek izen historiko bat baino gehiago dute, kultura bakoitzak emandakoa. Adibidez, Iparrizarrari, grekoz, *κυνόσουρα* zeritzon, «txakurraren isatsa»; Indiako astronomian, berriz, sanskritoaz, *Dhruvatāra* eta *Grahadhara*, «planeten bermea»; Erdi Aroko islamiar astronomian, *Mismar* izena eman zioten, «orratza» edo «iltzea»; eta abar.

Teleskopioak agertu zirenean, ordura arte ikusezin ziren izar «berri» asko agertu ziren, eta izar-katalogoak sortu ziren izarrei izendapen sistematikoak emateko. Lehenengo izar-katalogo modernoek konstelazioa hartu zuten oinarritzat izarra izendatzeko. Ezagunenetakoa Bayer izendapena da, Johann Bayer alemaniar astronomoak argitaratua 1603an, gaur egun oraindik oso erabilia. Letra greko xehe bat esleitu zion izar bakoitzari —alfa (α), beta (β), gamma (γ)...— izar bakoitzaren konstelazioaren latinezko izenarekin konbinatuta genitiboan. Hala, adibidez, *Aldebaran* izarra α *Tauri* da (*Alfa Tauri*); alegia, Taurus konstelazioko alfa izarra.

Gaur egungo katalogoek letraz eta zenbakiz osatutako kodeak erabiltzen dituzte izarrak izendatzeko¹⁵. GSCII katalogoak, adibidez, ehunka milioi izar ditu.

¹⁵ Katalogoak ugari dira; beraz, baita izar-izendapenak ere. Adibidez, Orion konstelazioko Betelgeuse izar supererraldoi gorriak izendapen hauek ditu: Betelgeuse (izen historikoa); Alpha Orionis (Bayer izendapena); HR 2061 (the *Bright Star Catalog*; Harvard Revised Photometry, HR); BD +7 1055 (*Bonner Durchmusterung*, BD); HD 39801 (*Henry Draper Catalog*, HD); SAO 113271 (*Smithsonian Astrophysical Observatory Catalog*, SAO); PPM 149643 (*Positions and Proper Motions Catalog*, PPM)...

Izarrak euskaraz izendatzeko, nazioarteko izendapena erabiliko da. Salbuespen bakarrak hauek dira:

- *Eguzkia eta Iparrizarra.*

- *Kastor eta Polux* (izen mitologikoak dira, eta hala arautuak daude 82. arauan). Irizpide sistematikoa da izen mitologikoak eta astro-izenak grafia bera izatea (irizpide bera erabiltzen da gure inguruko erdaretan ere).

Bayer izendapena erabiltzen denean, kontuan izan behar da letra grekoak euskarazko grafiarekin erabiltzekoak direla. Adibidez, *Sirius* ortziko izarrik distiratsuenaren Bayer izendapena *Alfa Canis Majoris* da. *Canis Majoris* latina da, eta hizkuntzatik hizkuntzara ez da aldatzen, baina *Alfa* grafia α letra grekoaren izenaren euskarazko grafia da, eta hizkuntza bakoitzaren arabera idaztekoa da. Adibidez:

- ingelesa, frantsesa, alemana, nederlandera...: *Alpha Canis Majoris*.

- gaztelania, italiara, katalana, daniera, suediera...: *Alfa Canis Majoris*.

3.2- Eranskina: alfabeto grekoaren letren izenak

Izarrak izendatzeko Bayer izendapena erabiltzen denean, alfabeto grekoaren letren izenak erabiltzen dira¹⁶. Letra grekoen izenak ez dira beti grafia bera erabiliz idazten gure inguruko hizkuntzetan. Horregatik, lagungarri izango delakoan, alfabeto grekoaren letren euskarazko izenak ematen dira hemen, eranskin gisa.

Alfabeto grekoaren letrak eta letren izenak

| larria | xehea | grekoa | euskara | gaztelania | frantsesa | ingelesa |
|----------|-------|--------|----------------|------------|------------|----------|
| A | α | Άλφα | alfa | alfa | alpha | alpha |
| B | β | Βήτα | beta | beta | bêta | beta |
| Γ | γ | Γάμμα | gamma | gamma | gamma | gamma |
| Δ | δ | Δέλτα | delta | delta | delta | delta |
| <i>E</i> | ε | Έψιλον | epsilon | épsilon | epsilon | epsilon |
| Z | ζ | Ζήτα | zeta | dseda | zêta/dzêta | zeta |
| H | η | Ήτα | eta | eta | êta | eta |
| Θ | θ | Θήτα | teta | zeta | thêta | theta |
| I | ι | Ιώτα | iota | iota | iota | iota |
| K | κ | Κάππα | kappa | kappa | kappa | kappa |

¹⁶ Jakina da alfabeto grekoaren letrak —letra guztiak— zientzian eta teknologian ere erruz erabiltzen direla (fisikan, kimikan, biokimikan, astronomian, ingeniartzan...).

| larria | xehea | grekoa | euskara | gaztelania | frantsesa | ingelesa |
|--------|-------|---------|-----------------------|------------|-----------|----------|
| L | λ | Λάμβδα | lambda | lambda | lambda | lambda |
| M | μ | Μι | mu ¹⁷ | mi | mu | mu |
| N | ν | Νι | nu ¹⁵ | ni | nu | nu |
| Ξ | ξ | Ξι | xi ¹⁸ | xi | xi | xi |
| Ο | ο | Όμικρον | omikron | ómicron | omicron | omicron |
| Π | π | ῤ Πι | pi | pi | pi | pi |
| P | ρ | Ρω | ro | ro | rhô | rho |
| Σ | σ, ς | Σίγμα | sigma | sigma | sigma | sigma |
| T | τ | Ταυ | tau | tau | tau | tau |
| Υ | υ | Υψιλον | upsilon ¹⁵ | ípsilon | upsilon | upsilon |
| Φ | φ | Φι | fi ¹⁹ | fi | phi | phi |
| X | χ | Χι | khi ²⁰ | ji | khi | chi |
| Ψ | ψ | Ψι | psi | psi | psi | psi |
| Ω | ω | Ωμέγα | omega | omega | oméga | omega |

3.3- Izarririk distiratsuenetariko batzuk²¹

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | Bayer izendapena | Bayer laburdura |
|----------|-------------------|-----------|----------|--------------------|-----------------|
| Eguzkia | Sol | Soleil | Sun | | |
| Sirius | Sirio / Sirius | Sirius | Sirius | Alfa Canis Majoris | α CMa |
| Canopus | Canopo / Canopus | Canopus | Canopus | Alfa Carinae | α Car |
| Arcturus | Arturo / Arcturus | Arcturus | Arcturus | Alfa Boötis | α Boo |

¹⁷ Ahoskera: [ɣ] ere ahoska daiteke (zubererazko *ũ* bezala).

¹⁸ Ahoskera: [ksi] (*taxi*, *oxido* edo *axioma* hitzetako *-xi-* silaba ahoskatu ohi den moduan, eta ez [ʃi], *xingola*, *lixiba* edo *xinaurri* hitzetako *-xi-* silaba ahoskatzen den moduan).

¹⁹ Greziera klasikoan, ρ hasperedun gisa ahoskatzen zen [p^h], Ipar Euskal Herriko zenbait tokitan *epher* ahoskatzen den bezala.

²⁰ Ahoskera: [x] (gaztelaniazko *ji* bezala, edo Hegoaldean *ijito* ahoskatu ohi den bezala).

²¹ Itxurazko magnitudearen arabera ordenatuta daude.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | Bayer izendapena | Bayer laburdura |
|--|---------------------------------|---|---|----------------------|-----------------|
| Alfa Centauri / Rigil Kentaurus | Alfa Centauri / Rigil Kentaurus | Alpha Centauri / Alpha du Centaure / Rigil Kentaurus / Rigil Kentarus / Toliman | Alpha Centauri / Rigil Kentaurus / Toliman / Rigel Kent | Alfa Centauri | α Cen A |
| Vega | Vega | Véga | Vega | Alfa Lyrae | α Lyr |
| Rigel | Rigel | Rigel | Rigel | Beta Orionis | β Ori |
| Procyon | Proción / Procyon | Procyon | Procyon | Alfa Canis Minoris | α CMi |
| Betelgeuse | Betelgeuse | Betelgeuse | Betelgeuse | Alfa Orionis | α Ori |
| Achernar²² | Achernar | Achernar / Akhenar | Achernar / Achenaar | Alfa Eridani | α Eri |
| Beta Centauri / Hadar / Agena | Beta Centauri / Hadar / Agena | Beta Centauri / Hadar / Agena | Beta Centauri / Hadar / Agena | Beta Centauri | β Cen |
| Capella | Capella | Capella | Capella | Alfa Aurigae | α Aur |
| Altair | Altair | Altaïr | Altair | Alfa Aquilae | α Aql |
| Aldebaran | Aldebarán | Aldébaran | Aldebaran | Alfa Tauri | α Tau |
| Spica | Espiga / Spica | Épi / Spica | Spica | Alfa Virginis | α Vir |
| Antares | Antares | Antarès | Antares | Alfa Scorpii | α Sco |
| Polux | Pólux | Pollux | Pollux | Beta Geminorum | β Gem |
| Fomalhaut | Fomalhaut | Fomalhaut | Fomalhaut | Alfa Piscis Austrini | α PsA |
| Deneb | Deneb | Deneb | Deneb | Alfa Cygni | α Cyg |
| Beta Crucis / Mimosa / Becrux | Becrux / Mimosa | Beta Crucis / Mimosa / Becrux | Beta Crucis / Mimosa / Becrux | Beta Crucis | β Cru |
| Regulus | Régulo / Regulus | Régulus | Regulus | Alfa Leonis | α Leo |
| Alfa Crucis / Acrux | Ácrux | Alpha Crucis / Acrux | Alpha Crucis / Acrux | Alfa Crucis | α Cru |

²² Izena arabieratik dator (*akhir an-nahr*), eta "ibaiaren amaiera" esan nahi du. "Akhernar" balitz bezala ahoskatzen da, hau da, [ajernar] (<j> hori gaztelaniazko *je* bezala ahoskatuta).

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | Bayer izendapena | Bayer laburdura |
|------------------------------|---|------------------------------------|--|-----------------------|-----------------|
| Adara / Adhara | Adara / Adhara | Adara / Adhara | Epsilon Canis Majoris / Adara / Adhara | Epsilon Canis Majoris | ε CMA |
| Kastor | Cástor | Castor | Castor | Alfa Geminorum | α Gem |
| Iparrizarra / Polaris | Estrella Polar / Estrella del Norte / Polaris | étoile polaire / polaire / Polaris | Polaris / North Star / Northern Star / Pole Star | Alfa Ursae Minoris | α UMi |
| Algol | Algol | Algol | Algol A | Beta Persei | β Per |
| Denebola | Denébola | Dénébola | Denebola | Beta Leonis | β Leo |

OHARRA: Latin klasikoan, honelakoa zen ahoskera: C letra euskarazko K letra bezala ahoskatzen zen (adibidez, *Alfa Centauri* izar-izena *Alfa Kentauri* balitz bezala ahoskatzen zen); QU letra-segida KU ahoskatzen zen (adibidez, *Alfa Aquilae* izar-izena *Alfa Akuilae* ahoskatzen zen). LL letra-segidan, bi L letrak aparteko silabetan baleude bezala ahoskatzen ziren (adibidez, *Capella* izar-izena *Kapel-la* ahoskatzen zen); X letra KS ahoskatzen zen (adibidez, *Polux* izar-izena *Poluks* ahoskatzen zen). G letra berdin ahoskatzen zen ondoko bokala edozein zela ere (adibidez, *Gemini* konstelazio-izeneko lehen silaba, GE, euskaraz *gero* hitzeko lehen silaba bezala ahoskatzen zen). AU, EU, AE eta OE diptongo ziren (adibidez, *Alfa Aurigae* izar-izenean, *Au-ri-gae* dira silabak, eta ez *Au-ri-ga-e*). H letrak hasperena adierazten zuen; PH-ren kasuan, gerora, /f/ eman zuen, eta, CH-ren kasuan, ohikoa zen ez ahoskatzea (adibidez, *Ophiuchus* konstelazio-izena *Ofiukus* ahoskatuko zen).

3.4- Konstelazioak eta asterismoak

Konstelazioak izar-elkarte konbentzionalak dira. Antzinako herri eta zibilizazioek, zeru-eskualde berean ikusten diren izar batzuk irudizko lerroz loturik, izar-taldeak irudikatu zituzten, eta siluetak osatu. Nazioarteko Astronomia Batasunak, 1930ean, zeru-esfera 88 konstelaziotan multzokatu zuen, eta konstelazio bakoitzaren mugak zehatz-mehatz zedarritu zituen (88 horietatik 48 jada II. mendean zerrendatu zituen Ptolomeok).

Konstelazioak, beraz, zeru-koordinatu bidez adierazten dira gaur egun, eta ez izarretik izarerara doazen lerroen bidez. Dena den, konstelazio askoren izenak konstelazioko izar distiratsuenen arteko lerroek osatzen duten irudizko formatatik datoz.

Zerutik ikusita irudizko forma bat osatzen duen izar-multzoari baina ofizialki konstelaziotzat onartuta ez dagoenari *asterismo* deritzo. Asterismoa, hala, konstelazio baten parte bat izan daiteke, edo konstelazio desberdinetako izarrez osatuta egon daiteke.

Konstelazioak latinez izendatzen dira nazioartean, eta konstelazio-izen bakoitzak bi forma ditu; nominatiboa, konstelazioa bakarrik erabiltzen denean, eta genitiboa, izarren izenetan erabiltzen denean. Adibidez, *Aquila* konstelazioak (nominatiboa) *Aquilae* forma (genitiboa)

hartzen du izar baten izenaren parte denean; hala, *Altair* izarren izen sistematikoa *Alfa Aquilae* da (*Aquila* konstelazioko alfa izarra).

Izenaz gainera, konstelazio bakoitzak hiru letrako laburdura du, Nazioarteko Astronomia Batasunak onartua. Adibidez, *Andromedaren* laburdura *And* da, eta *Aquilarena* *Aql*. Latinezko izendapenaz gainera, ohikoa da hizkuntza bakoitzean latinezko izena itzultzea; hala, bi izendapenak erabili ohi dira: latinezkoa (ofiziala eta ohikoa testu teknikoetan) eta itzulpena (ohikoa dibulgazio-testuetan). Adibidez, *Aquila* eta *Auriga* konstelazioak honela izendatzen dira inguruko hizkuntzetan:

- gaztelaniaz: *Águila/Aquila; Cochero/Auriga*
- frantsesa: *Aigle/Aquila; Cocher/Auriga*
- ingelesa: *Aquila/Eagle; Auriga/Charioteer*
- alemana: *Adler/Aquila; Fuhrmann/Auriga*
- katalana: *Àguila/Aquila; Cotxer/Auriga*
- nederlandera: *Arend/Aquila; Voerman/Auriga*

Beste konstelazio gutxi batzuek mitologian dute jatorria. Halakoetan ere, ohikoa da, izen mitologikoetan gertatzen den bezala, grafia moldatzea. Adibidez:

- gaztelaniaz: *Pegaso; Casiopea*
- frantsesa: *Pégase; Cassiopée*
- ingelesa: *Pegasus; Cassiopeia*
- alemana: *Pegasus; Kassiopeia*
- katalana: *Pegàs; Cassiopea*
- nederlandera: *Pegasus; Cassiopeia*

3.5- Zodiakoko konstelazioak eta astrologiako zeinuak

Aipamen berezia behar dute zodiakoko hamabi konstelazioak. 1571n argitaratu zituen Joanes Leizarragak *Kalendrera* egutegia, eta latinez eman zituen zodiakoko 12 konstelazioen izenak.













Geroago, beste idazle batzuek (Larramendi, Arana Goiri, Ibiñagabeitia, Berazadi...) itzulpenak egin edo asmatu zituzten, hala nola Zezenaga (Taurus), Bikieta (Gemini) edo Neskaga (Virgo).

Gaur egungo testuetan, konstelazioak aipatzeko, latinezko izendapena erabiltzen da entziklopedietan eta testu teknikoetan. Eta itzulpena ere ematen da, zenbaitetan, baliokide gisa. Adibidez, *Taurus* = *Zezena*.

Zodiakoko konstelazioei sinboloak esleitzen zaizkienez eta astronomian ez ezik astrologian ere erabiltzen direnez, normala da erdaretan itzulpenak edo grafia-aldaketak gertatzea. Hala, gaztelaniaz, zodiakoko konstelazioen latinezko izen askoren grafia egokitu egin da (*Tauro*, *Géminis*, *Escorpio*, *Acuario*...), eta beste batzuen ez (*Aries*, *Virgo*, *Libra*, *Leo*). Frantsesez itzuli egin ohi dira (*Bélier*, *Taureau*, *Gémeaux*, *Lion*, *Vierge*...). Ingeleseztan, latinezko izenak erabili ohi

dira, baina *Scorpio* eta *Capricorn* grafiak egokitu egiten dira; alemanez, latinezkoak eta itzulpenak erabiltzen dira. Italieraz, egokitu eta itzuli egiten dira.

Horiek horrela, 1) euskal tradizioa arakaturik, 2) euskarazko gaur egungo hiztegi eta entziklopedietako jokabidea ikusirik, 3) nazioarteko jokabide teknikoak ikusirik eta 4) inguruko erdaretako erabilera aztertutik, izen hauek onartu ditu Euskaltzaindiak zodiakoko konstelazio eta zeinuen izenatarako: testu teknikoetan, jasoetan edo formaletan, latinezko izendapena erabiliko da, lehentasunez; gainerakoetan, izendapen moldatuak edo itzuliak erabil daitezke.

| Euskara | Sinboloa | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | Alemana | Italiera |
|----------------------------------|---|-------------|------------|-------------|------------|------------|
| Aquarius / Akuarioa |  | Acuario | Verseau | Aquarius | Wassermann | Aquario |
| Aries / Aharria |  | Aries | Bélier | Aries | Widder | Ariete |
| Cancer / Karramarroa |  | Cáncer | Cancer | Cancer | Krebs | Cancro |
| Capricornus / Kaprikornioa |  | Capricornio | Capricorne | Capricorn | Steinbock | Capricorno |
| Gemini / Bikiak |  | Géminis | Gémeaux | Gemini | Zwillinge | Gemelli |
| Leo / Lehoia |  | Leo | Lion | Leo | Löwe | Leone |
| Libra / Balantza |  | Libra | Balance | Libra | Waage | Bilancia |
| Pisces / Arrainak |  | Piscis | Poissons | Pisces | Fische | Pesci |
| Sagittarius / Sagitariora |  | Sagitario | Sagittaire | Sagittarius | Schütze | Sagittario |
| Scorpius / Eskorpioia |  | Escorpio | Scorpion | Scorpio | Skorpion | Scorpione |
| Taurus / Zezena |  | Tauro | Taureau | Taurus | Stier | Toro |
| Virgo / Birjina |  | Virgo | Vierge | Virgo | Jungfrau | Vergine |

3.6- Konstelazioen izenak euskaraz adierazteko irizpidea

Euskaraz, konstelazioen izenak adierazteko, komeni da nazioarteko formak —latinezko grafia— erabiltzea, hainbat komeniago testuak zenbat eta teknikoago edo jasoago izan. Nolanahi ere, latinezko izenen itzulpenak edo egokitzapenak ere —azalpen-izenak— erabil daitezke, bigarren mailan, testu didaktikoetan edo azalpen gisa.

Konstelazio-izen guztiek ez dute erabilera-maiztasun bera, eta izen guztiak, egokitzapenari edo itzulpenari begira, ez dira berdinak. Adibidez, *Antlia* konstelazioaren azalpen-izena *Makina pneumatikoa* da (en *Air Pump*; es *Máquina neumática*; fr *Machine pneumatique*; de *Luftpumpe*). Ziur asko, errazago erabiliko da *Antlia* konstelazioa izendapena *Makina pneumatikoaren konstelazioa* izendapena baino.

Baina, bestalde, litekeena da, adibidez, *Camelopardalis* konstelazioa izendapena baino errazago erabiltzea *Jirafa(ren) konstelazioa* izendapena.

3.7- Konstelazioak (88 konstelazio ofizialak)

| Euskarazko izena (azalpen-izena) | Latinezko izena (nazioarteko izena) | Genitiboa | Gaztelaniazko egokitzapena edo azalpen-izena | Frantsesezko egokitzapena edo azalpen-izena | Ingelesezko azalpen-izena |
|---|-------------------------------------|-------------------|--|---|---------------------------|
| Andromeda | Andromeda | Andromedae | Andrómeda | Andromède | the Chained Maiden |
| Antlia (Makina pneumatikoa) | Antlia | Antliae | la Máquina neumática | Machine pneumatique | the Air Pump |
| Apus (Paradisuko hegaztia) | Apus | Apodis | el Ave del Paraíso | Oiseau de paradis | the Bird of Paradise |
| Aquarius (Akuarioa) | Aquarius | Aquarii | Acuario | Verseau | the Water Bearer |
| Aquila (Arranoa) | Aquila | Aquilae | el Águila | Aigle | the Eagle |
| Ara (Aldarea) | Ara | Arae | el Altar | Autel | the Altar |
| Aries (Aharria) | Aries | Arietis | el Carnero | Bélier | the Ram |
| Auriga (Gurdizaina) | Auriga | Aurigae | el Cochero | Cocher | the Charioteer |
| Boötes (Itzaina) | Boötes | Boötis | el Boyero / el Pastor | Bouvier | the Herdsman |
| Caelum (Zizela) | Caelum | Caeli | el Cincel | Burin | the Engraving Tool |
| Camelopardalis (Jirafa) | Camelopardalis | Camelopardalis | la Jirafa | Girafe | the Giraffe |
| Cancer (Karramarroa) | Cancer | Cancri | el Cangrejo | Cancer | the Crab |
| Canes venatici (Ehiza-txakurrak) | Canes Venatici | Canum Venaticorum | los Perros de caza | Chiens de chasse | the Hunting Dogs |
| Canis Maior (Txakur Handia) | Canis Major | Canis Majoris | el Perro Mayor | Grand Chien | the Great Dog |
| Canis Minor (Txakur Txikia) | Canis Minor | Canis Minoris | el Perro Menor | Petit Chien | the Lesser Dog |

| Euskarazko izena (azalpen-izena) | Latinezko izena (nazioarteko izena) | Genitiboa | Gaztelaniazko egokitzapena edo azalpen-izena | Frantsesezko egokitzapena edo azalpen-izena | Ingelesezko azalpen-izena |
|--|--|-------------------|--|---|---------------------------|
| Capricornus (Kaprikornioa) | Capricornus | Capricorni | Capricornio | Capricorne | the Sea Goat |
| Carina (Gila) | Carina | Carinae | la Quilla | Carène | the Keel |
| Cassiopeia (Kasiopea) | Cassiopeia | Cassiopeiae | Casiopea | Cassiopée | the Seated Queen |
| Centaurus (Zentauroa) | Centaurus | Centauri | el Centauro | Centaure | the Centaur |
| Cepheus (Zefeo) | Cepheus | Cephei | Cefeo | Céphée | the King |
| Cetus (Balea) | Cetus | Ceti | Ceto | Baleine | the Sea Monster |
| Chamaeleo (Kameleioa) | Chamaeleon | Chamaeleontis | el Camaleón | Caméléon | the Chameleon |
| Circinus (Konpasa) | Circinus | Circini | el Compás | Compas | the Compass |
| Columba (Usoa) | Columba | Columbae | la Paloma | Colombe | the Dove |
| Coma Berenices (Berenizeren adatsa) | Coma Berenices | Comae Berenices | la cabellera de Berenice | Chevelure de Bérénice | the Bernice's Hair |
| Corona Australis (Hego Koroa) | Corona Australis | Coronae Australis | la Corona Austral | Couronne australe | the Southern Crown |
| Corona Borealis (Ipar Koroa) | Corona Borealis | Coronae Borealis | la Corona Boreal | Couronne boréale | the Northern Crown |
| Corvus (Belea) | Corvus | Corvi | el Cuervo | Corbeau | the Crow |
| Crater (Kopa) | Crater | Crateris | la Copa | Coupe | the Cup |
| Crux (Hego Gurutzea) | Crux | Crucis | la Cruz del Sur | Croix du Sud | the Southern Cross |
| Cygnus (Zisnea) | Cygnus | Cygni | el Cisne | Cygne | the Swan |
| Delphinus (Izurdea) | Delphinus | Delphini | el Delfín | Dauphin | the Dolphin |
| Dorado (Urrezko arraina) | Dorado | Doradus | el Pez dorado | Dorade | the Swordfish |
| Draco (Herensugea) | Draco | Draconis | el Dragón | Dragon | the Dragon |
| Equuleus (Zaldia) | Equuleus | Equulei | el Caballo | Petit Cheval | the Little Horse |
| Eridanus (Eridano) | Eridanus | Eridani | el Río | Éridan | the River |

| Euskarazko izena (azalpen-izena) | Latinezko izena (nazioarteko izena) | Genitiboa | Gaztelaniazko egokitzapena edo azalpen-izena | Frantsesezko egokitzapena edo azalpen-izena | Ingelesezko azalpen-izena |
|-------------------------------------|--|----------------|--|---|---------------------------|
| Fornax (Labea) | Fornax | Fornacis | el Horno | Fourneau | the Furnace |
| Gemini (Bikiak) | Gemini | Geminorum | Géminis / Los Gemelos | Gémeaux | the Twins |
| Grus (Kurriloa) | Grus | Gruis | la Grulla | Grue | the Crane |
| Hercules (Herkules) | Hercules | Herculis | Hércules | Hercule | the Hercules |
| Horologium (Erlojua) | Horologium | Horologii | el Reloj | Horloge | the Clock |
| Hydra (Hidra) | Hydra | Hydrae | Hidra | Hydre | the Female Water Snake |
| Hydrus (Itsas suge arra) | Hydrus | Hydri | la Serpiente marina | Hydre mâle | the Male Water Snake |
| Indus (Indiarra) | Indus | Indi | el Indio | Indien | the Indian |
| Lacerta (Muskerra) | Lacerta | Lacertae | el Lagarto | Lézard | the Lizard |
| Leo (Lehoia) | Leo | Leonis | el León | Lion | the Lion |
| Leo Minor (Lehoi Txikia) | Leo Minor | Leonis Minoris | el León Menor | Petit Lion | the Lesser Lion |
| Lepus (Erbia) | Lepus | Leporis | la Liebre | Lièvre | the Hare |
| Libra (Balantza) | Libra | Librae | la Balanza | Balance | the Scales |
| Lupus (Otsoa) | Lupus | Lupi | el Lobo | Loup | the Wolf |
| Lynx (Katamotza) | Lynx | Lyncis | el Lince | Lynx | the Lynx |
| Lyra (Lira) | Lyra | Lyrae | la Lira | Lyre | the Lyre |
| Mensa (Mahaia) | Mensa | Mensae | la Mesa | Table | the Table Mountain |
| Microscopium (Mikroskopioa) | Microscopium | Microscopii | el Microscopio | Microscope | the Microscope |
| Monoceros (Adarbakarra) | Monoceros | Monocerotis | el Unicornio | Licorne | the Unicorn |
| Musca (Eulia) | Musca | Muscae | la Mosca | Mouche | the Fly |
| Norma (Erregela) | Norma | Normae | La Regla | Règle | the Carpenter's Square |
| Octans (Oktantea) | Octans | Octantis | el Octante | Octant | the Octant |
| Ophiuchus (Ofiuko) | Ophiuchus | Ophiuchi | Ofiuco | Ophiuchus | the Serpent Bearer |

| Euskarazko izena (azalpen-izena) | Latinezko izena (nazioarteko izena) | Genitiboa | Gaztelaniazko egokitzapena edo azalpen-izena | Frantsesezko egokitzapena edo azalpen- izena | Ingeleseko azalpen-izena |
|--|--|------------------|---|---|-------------------------------------|
| Orion (Ehiztaria) | Orion | Orionis | Orión | Orion | the Hunter |
| Pavo (Pauma) | Pavo | Pavonis | el Pavo real | Paon | the Peacock |
| Pegasus (Pegaso) | Pegasus | Pegasi | Pegaso | Pégase | the Winged Horse |
| Perseus (Pertseo) | Perseus | Persei | Perseo | Persée | the Hero |
| Phoenix (Fenix) | Phoenix | Phoenicis | el Fénix | Phénix | the Phoenix |
| Pictor (Pintatzailea) | Pictor | Pictoris | la Paleta del Pintor | Peintre | the Painter's Easel |
| Pisces (Arrainak) | Pisces | Piscium | Piscis / los Peces | Poissons | the Fishes |
| Piscis Austrinus (Hegoaldeko Arraina) | Piscis Austrinus | Piscis Austrini | el Pez Austral | Poisson austral | the Southern Fish |
| Puppis (Popa) | Puppis | Puppis | la Popa | Poupe | the Stern |
| Pyxis (Iparrorratza) | Pyxis | Pyxidis | la Brújula | Boussole | the Compass |
| Reticulum (Sarea) | Reticulum | Reticuli | el Retículo | Réticule | the Reticule |
| Sagitta (Gezia) | Sagitta | Sagittae | la Flecha | Flèche | the Arrow |
| Sagittarius (Sagitariora) | Sagittarius | Sagittarii | Sagitario | Sagittaire | the Archer |
| Scorpius (Eskorpioia) | Scorpius | Scorpii | el Escorpión | Scorpion | the Scorpion |
| Sculptor (Eskultorea) | Sculptor | Sculptoris | el Escultor | Sculpteur | the Sculptor |
| Scutum (Ezkutua) | Scutum | Scuti | el Escudo | Écu de Sobieski | the Shield |
| Serpens (Sugea) | Serpens | Serpentis | la Serpiente | Serpent | the Serpent |
| Sextans (Sestantea) | Sextans | Sextantis | el Sextante | Sextant | the Sextant |
| Taurus (Zezena) | Taurus | Tauri | Tauro, el Toro | Taureau | the Bull |
| Telescopium (Teleskopioa) | Telescopium | Telescopii | el Telescopio | Télescope | the Telescope |
| Triangulum (Triangelua) | Triangulum | Trianguli | el Triángulo | Triangle | the Triangle |

